

Segurtasun Araua: jokabide informatikoaren kodea hornitzaileentzat

 Egin eta mantentzearen arduraduna:
 Segurtasun Saila

Berraztertzea: 06

Indarrean sartzeko data: 11/05/02

Informazio publikoa

1. HELBURUA	2. IRISMENA
Barne-arau honen helburua segurtasun politika bat ezartzea da, Lantiken hornitzaile guztiei Lantikek dauzkan azpiegitura eta informatikako baliabide guztiak behar bezala erabiltzen laguntzeko.	Lantikeko hornitzaileek erabilitako azpiegitura eta informatikako baliabideei aplikatuko zaie, besteak beste, hurrengoei: tresna informatikoak erabiltzea, beste sare batzuetara (adibidez: internet, intranet eta sare korporatiboa) atzitzea eta zerbitzu korporatiboak (besteak beste, posta elektronikoa, aplikazioetara atzipena, etab.) erabiltzea ahalbidetzen duten ekipo informatiko, programa, zerbitzari, sare, kokapen eta abarri.

AURKIBIDEA

1. HELBURUA	1
2. IRISMENA	1
3. SARRERA	2
4. APLIKAZIO-EREMUA	3
5. ZIOAK ETA HELBURUAK	4
6. BALIABIDE INFORMATIKOEN ERABILERARI BURUZKO GIDALERRO OROKORRAK	4
7. BERRIKUSPEN ETA KONTROL AHALMENA	6
8. INSTALAZIOETAN SARTZEA	6
9. SARE KORPORATIBOAN SARTZEA	6
10. EKIPO INFORMATIKOEN ERABILERA (HARDWAREA)	7
11. PROGRAMA ETA FITXATEGI INFORMATIKOEN ERABILERA (SOFTWAREA)	7
12. INTERNETEKO NABIGAZIOA	8
13. POSTA ELEKTRONIKOAREN ERABILERA	8
14. GORDETZEA (SARE-UNITATEAK, LANKIDETZARAKO LAN PUNTUAK, ETAB.)	9
15. HORNITZAILEEK ESKATU EZIN DITUZTEN BALIABIDEAK	9
16. HORNITZAILEAK ESKURATUTAKO BALIABIDEAK	10
17. BETETZEA	10
18. JOKABIDE ARAUAK BETE BEHARRA	10
19. INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA	11
20. ZERIKUSIA DUTEN DOKUMENTUAK	11
21. BERRIKUSPENEN HISTORIA	11

3. SARRERA

- 3.1. Lantikek azpiegiturak eta informatikako baliabideak dauzka, bere zerbitzuak eraginkortasunez eta azkartasunez ematen dituela bermatzen dutenak. Lan tresna horien artean tresna informatikoen erabilera, bestelako sareetara atzipena (adibidez: internet, intranet, sare korporatiboa) eta zerbitzu korporatiboen erabilera (besteak beste, posta elektronikoa, aplikazioetara atzipena, etab.) ahalbidetzen duten ekipo informatikoak, programak, zerbitzariak, sareak, etab. sartzen dira.
- 3.2. Baliabide horien erabilera asko zabaldu da eta, gainera, Lantikek bere bezeroei ematen dien zerbitzuagatik zenbait erantzukizun dauzka. Horregatik guztiagatik, zenbait arau argi ezarri behar dira, erabiltzaileei bitarteko horiek modu egokian erabiltzen laguntzeko.

3.3. Definizioak

Administratzaileak: Sistema informatiko baten funtzionamendu zuzena gainbegiratzen eta kontrolatzen duten pertsonak.

Erabiltzailearen profila eta administratzailearen profila izango dute.

Eguneratzeak edo adabakiak: Programei egiten zaizkien hobekuntzak arazoak konpontzeko (segurtasuna, errendimendua...).

BFA: Bizkaiko Foru Aldundia – Diputación Foral de Bizkaia.

EAZ: Erabiltzaileei Laguntzeko Zentroa.

Pasahitzak (password) edo segurtasun-gakoak: Zereginak gauzatzeko BFAk eskura jarri ostean, informatikako baliabideetan eta azpiegituran sartzen eta horiek erabiltzen ahalbidetzen duten "giltzak" dira.

Erabiltzaile kontua edo "User-id": Erabiltzailearen identifikatzailea da eta sistema informatikoan sartzeko erabiltzen da.

Interneteko helbideak: Ekipo bat Interneten identifikatzen duen helbidea. Hura aipatzen denean, IP helbideez ari gara normalean.

Informazioa: Sistema informatikoen biltegiratzen, prozesatzen, irudikatzen eta transmititzen dutenaz gain, idatzita nahiz inprimatuta, bitarteko bisualekin proiektatutakoa eta ahoz esaten dena ere hemen sartzen da.

Informatika mugigarria: Erakundearen lokaletatik kanpora ateratzen diren osagai guztiak sartzen dira hemen, adibidez, ordenagailu eramangarriak, kanpoko disko gogorrak, PenDriveak, telefonoak, PDAk etab. **Azpiegitura:** Lantiken funtzionamendurako beharrezkotzat jotzen diren elementu edo zerbitzuen multzoa.

Erabiltzailearen profila: Profila, eguneroko lanak egiteko mugatutako pribilegioekin (Interneten nabigatzea, posta irakurtzea, dokumentu ofimatikoen kudeaketa eta abar).

Administratzailearen profila (sekundarioa): Administrazio pribilegioak (asko) dauzkan profila. Aktiboak administratzeko soilik erabiliko da, une jakin batzuetan (administratzea beharrezkoa den momentuan bakarrik).

Hornitzailea: Langileen artean ez dagoen pertsona edo enpresa, Lantiki edo bere bezeroei zerbitzuez hornitzen diena.

Baliabidea: Informazio sistema baten edozein zati edo osagai.

Sarea (datuena): Elkarri konektatuta dauden eta informazioa trukatu ahal duten ordenagailuen eta ekipo informatikoen multzoa.

Barne sarea: Datu-sare bat, zeinetan trukearen eremua enpresa/administrazio inguruneari mugatuta dagoen.

Informazio sistema: Fitxategien, tratamenduen, programen, euskarrien eta, beharrezkoa bada, datuak tratatzeko erabiltzen diren ekipoen multzoa.

Erabiltzailea: LANTIKen zerbitzura dauden langile guztiak, baita edozein harremanen babesean Lantiken edo bere bezeroen informazioa eta baliabideak lortzeko aukera duen edozein pertsona ere. Erabiltzaile profila edukiko dute.

4. APLIKAZIO-EREMUA

- 4.1. Kode honetan sartzen diren arauak Lantikeko erabiltzaile guztiei aplikatu beharko zaizkie.
- 4.2. Jokabide Informatikoaren Kode honek xedatzen duenerako, hornitzailea Lantiki zerbitzuak eskaintzen dizkion pertsona edo enpresa oro izango da, bertako langilea ez bada. Halaber, hornitzaileentzat jotzen da kanpoko edozein pertsona, edozein harremanen babesean, Lantiken edo bere bezeroen informazioa edo baliabideak lortzen baditu.
- 4.3. Jokabide Kodea Lantiken sarearen bidez egiten diren komunikazio guztietarako ere aplikatu behar da, baita erakundeak hornitzaileei eskaintzen dizkien tresna eta sistema guztietarako ere.
- 4.4. Lantikek baliabide berriak sartzen baditu eta hornitzaileen esku jartzen baditu, eta kode honetan aurreikusten direnetatik ezberdinak dira, beraiei buruzko arauketa zehatzago bat sortzen den arte, Informatikako Jokabide Kode honetan xedatutakoa aplikatuko da beraien erabilerari dagokionez.
- 4.5. Lantiken azpiegiturak edo baliabide informatikoak administratzen dituzten pertsoneri, gainera, NSG 1/1 Segurtasun Arauak: Jokabide Informatikoaren Kodea. Administratzaileentzat Eranskina. izeneko eranskinean sartutako arauak aplikatuko zaizkie. Nolanahi ere, Segurtasun Sailak administratzaileei eskuratuko die.
- 4.6. Jokabide Kode honen edukari buruz sor daitekeen edozein zalantza edo kontsulta tekniko argitze aldera, EAZaren bidez kontsulta egiteko eskatzen dizugu.

Segurtasun Araua: jokabide informatikoaren kodea hornitzaileentzat

Indarrean sartzeko data: 11/05/02

Berraztertzea: 06

5. ZIOAK ETA HELBURUAK

- 5.1. Jokabide Kode honetan dauden gidalerroak finkatzeko arrazoia arau argiak ezarri beharrean datza. Arau horiek (i) Lantikek hornitzaileei eskaintzen dizkien laneko sistema eta tresna tekniko eta informatikoak modu egoki eta eraginkorrean erabiltzen direla bermatu behar dute, (ii) tresna horien erabilera okerra edo desegokia galarazi behar dute, eta (iii) Lantikek eta hornitzaileek aplikatu behar diren arauzko xedapenak betetzen dituztela bermatu behar dute.
- 5.2. Era berean, hornitzaileen artean kontzientzia sortu nahi dugu informazioaren segurtasunari buruz, bai Lantiken instalazioetan bai kanpoan. Horregatik, hornitzaileak Lantiken instalazioetatik kanpo dauden ordenagailuen bidez sare korporatiboan sartu ahal direnean ere kode honetako arauak eta erregelak bete behar dira.
- 5.3. Kode honen bitartez, gainera, Lantiken hornitzaile guztiak baliabide informatikoak behar bezala erabiltzearen garrantziaz jabetzea nahi dugu, beste batzuekin (administrazioak, bezeroak, enpresak, etab.) eta gainerako hornitzaileekin hartzen ditugun kalitate eta konfidentziasun konpromisoak bermatze aldera. Izan ere, Lantikek oso konpromiso maila garrantzitsua hartu du bere informazioari dagokionez; ezin zaio inori jakitera eman edo inoren eskura jarri.
- 5.4. Gure erakundearen informazioaren teknologia berriak sartu direnez gero, Lantiken ingurutik kanpo informazioa jakitera ematean sor daitezkeen arriskuak izugarri gehitu dira. Hori bereziki esanguratsua da Lantiken ingurune instituzional eta publikoan. Horrenbestez, egiten dugun lanaren izaera sentikor eta konfidentziala kontuan izanik, Lantikek bere barruan dauden tresna tekniko eta informatikoen hornitzaileek egiten duten erabilera monitorizatzeko eta gainbegiratzeko sistemak eskuratu ditu.

6. BALIABIDE INFORMATIKOEN ERABILERARI BURUZKO GIDALERRO OROKORRAK

- 6.1. Hemen deskribatzen diren gidalerroek baliabide informatikoei eta azpiegiturari eman behar zaien erabilera modu argi eta gardenean zehaztu nahi dute. Hornitzaileek arau hauek betetzean izan ditzaketen zalantza edo argibide guztiak argitzeko prest dago Lantik.
- 6.2. Lantiken asmoa jabetza intelektual edo industrialeko legeen edukia betetzea da. Horregatik, hornitzaileek, programak edo informazioa erabili eta Lantiken esku jarri baino lehen egiaztatu beharko dute jabetza intelektual edo industrialaren legeek babestuta dauden. Betiere, iturria aipatu behar dute, informazio hori edozein lan-dokumentutan erabiliz gero.
- 6.3. **Lantiken jarduerekin zerikusia duen informazio oro konfidentziala da.** Horregatik, informazioa agindutako funtzioak betetzeko bakarrik erabili behar da. Hornitzaileek informazio sistemen erabileran aplikatutako funtzioak eta betebeharrak bete behar dituzte, Lantikek emandako araudian eta indarrean dagoen araudian ezarritako arauak betetz, bereziki datuen babesari buruzko araudia eta SEN (Segurtasun Eskema Nazionala) betetz.

6.4. Lantikek edozein unetan eska dezake hornitzaileari azaldu edo berak sortu duen edozein informazio mota berehala itzuli edo suntsitzea.

6.5. Lantikek edozein unetan ikuska ditzake bere baliabideak edo besteenak, kontratatutako zerbitzuen euskarri badira.

6.6. Hornitzaileek eskaintzen zaizkien bitartekoak erabilera-egoera optimoan gorde behar dituzte. Beharrezkotzat jotzen ez den informazioa edo baliorik ez duena ezabatu behar dute, Lantiken zerbitzuen errendimendua eta kalitatea hobetzeko eta operatibitate egokia bermatzeko.

Helburu profesionaleko erabilera

6.7. Lantikek hornitzaileen esku jarritako bitarteko guztiak helburu profesionalarekin erabiltzeko entregatzen dira.

6.8. Lantik sarearen bidez izandako konexio guztiak (korporatiboa, internet, etab.) helburu profesionalarekin erabiliko dira.

6.9. Bestelako erabilerarik debekatua dago.

Lantikekiko harremanaren amaiera

6.10. Lantikek sistema informatiko egokiak eskaintzen dizkie hornitzaileei, beraiekin duen harremana indarrean dagoen bitartean euren funtzioak bete ditzaten. Lantikekiko lankidetzak amaitzen dutenean, ezin izango dira sartu ekipo tekniko eta informatikoetan, eta horrenbestez, ezin izango dituzte beraietan dauden fitxategiak eskuratu.

6.11. Hornitzaile ohi batek bitarteko edo ekipo informatikoak baldin badauzka (ordenagailu eramangarria, euskarriak, informazioa eta abarrekoak), harremana amaitu baino lehen itzuli behar ditu.

6.12. Era berean, hornitzaile batek Lantikekin harremana amaitzen badu, fitxategi eta dokumentu guztiak ukitu gabe utziko ditu.

6.13. Konfidentzialtasun betebeharrak Lantikekiko harremana amaitutakoan ere mantenduko dira.

Segurtasun Araua: jokabide informatikoaren kodea hornitzaileentzat

Indarrean sartzeko data: 11/05/02

Berraztertzea: 06

7. BERRIKUSPEN ETA KONTROL AHALMENA

- 7.1. Lantikek beretzat gordetzen ditu sistema informatiko guztiak berrikusteko ahalmena, eta dauzkan bitartekoen bidez hornitzaile bakoitzak eskaini zaizkion bitarteko eta baliabide informatikoei ematen dien erabilera kontrolatzeko ahalmena, Lantiken eta gainerako erabiltzaileen interesak babesteko beharrezkotzat jotzen badu, edo segurtasuneko edo zerbitzuko arrazoi zehatzengatik komenigarria denean, tratamenduaren premia-, minimizazio- eta proportzionaltasun-printzipioak uneoro bermatuz.
- 7.2. Lantik, tratamenduaren arduraduna den aldetik, bere hornitzaileei jakinarazten die bere datuak tratatuko direla TI azpiegiturarako sarbide logikoa lehertzeko eta ziberintzidenteak kudeatzeko. Tratamendu horrek esan nahi du Lantiken sistema korporatiboen sarbidea eta erabilera geolokalizatzeko aukera ematen duten datuak tratatu daitezkeela. Datuen tratamendua legitimatuta dago hornitzailearekin Lantikekin lotzen duen kontratu-harremana garatu eta gauzatzean.
- 7.3. Era berean, Lantikek datu horiek jakinarazi ahal izango dizkie Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei, salaketa eta/edo errekerimendu judizialen kasuetarako, eta epaitegiei, errekerimendu judizialaren ondorioz. Lantiken webgunean kontsulta daiteke tratamendu horri buruzko xehetasun gehiago, bai eta interesdunen eskubideei buruzko informazioa ere.

8. INSTALAZIOETAN SARTZEA

- 8.1. Lantiken instalazioetara sartuko den pertsona orok aplikatu beharreko sarbide-araudia bete beharko du.
- 8.2. Lantiken instalazioetara sartzea beharrezkoa izanez gero.
 - Identifikazio-txartela emango da, eta txartel hori beti ikusteko lekuan eraman beharko da.
 - Zerbitzua edo bisita amaitu ostean, txartela itzuli egin beharko da Lantiken beheko solairuan dagoen zaintza-postuan.

9. SARE KORPORATIBOAN SARTZEA

- 9.1. Hornitzaileen kontu guztiak pasahitza definitua eduki behar dute.
- 9.2. Lantikeko hornitzaileek onartutako segurtasun arauak bete behar dituzte.
- 9.3. Hornitzaileek ezin dute sare korporatiboa erabili beste pertsona edo erakunde batzuei sartzen uzteko.
- 9.4. Lantiken hornitzaileek sarea erabiltzeari dagokionez sortzen zaizkien arazo guztiak EAZri jakinaraziko dizkiote.
- 9.5. Baliabidea helburu profesionalarekin erabiliko da.
- 9.6. Bestelako erabilerarik debekatua dago.

10. EKIPO INFORMATIKOEN ERABILERA (HARDWAREA)**Printzipio orokorrak**

- 10.1. Baliabidea helburu profesionalarekin erabiliko da.
- 10.2. Bestelako erabilerarik debekatua dago.
- 10.3. Espresuki debekatuta dago edozein bitarteko erabiliz beste erabiltzaile batzuen sistema informatikoetan sartzea beste erabiltzaile baten identifikazio pertsonaleko gakoa (login) edo pasahitza (password) erabiliz, salbu eta berariaz baimentzen bada.
- 10.4. Edozein arrazoiengatik hornitzailearen batek bere lanpostua uzten badu, bere sistema blokeatuko du, hirugarrenak legez baimendutako hornitzailearen baliabideetan eta aplikazioetan ez sartzeko.
- 10.5. Hornitzaileek bitarteko eta ekipo informatikoak (hardware) ondo erabiltzen dituztela egiaztatzeko Lantikek egiten dituen kontrolari eta berrikuspenari dagokienez, kode honetako 7.1 eta 7.2 klausuletako edukia aplikatu behar da.

11. PROGRAMA ETA FITXATEGI INFORMATIKOEN ERABILERA (SOFTWAREA)**Printzipio orokorrak**

- 11.1. Nolanahi ere, informazio konfidentziala ezin zaie bidali informazioa jaso behar duten erakundeak eta pertsonak ez direnei, salbu eta Lantiken aplikatu beharreko arau orokorrak betez egiten bada.
- 11.2. Lantiken hornitzaileei eskaintzen zaizkien programa eta fitxategi informatikoak erabilera profesionalerako dira soilik.
- 11.3. Hornitzaileek programa eta fitxategi informatikoak erabiltzeko modua kontrolatzeari eta berrikusteari dagokienez, kode honetako 7.1 eta 7.2 klausulak aplikatu beharko dira.

Programen eta fitxategi informatikoen segurtasuna

- 11.4. Zerbitzua eskaintzeko erabilitako ekipo guztiek birusen kontrako programa instalatua izango dute. Aitzitik, birusen aurkako programa horiek ez dute guztiz bermatzen birus informatikoak sortu eta zabaldu ezin direnik. Horregatik, hornitzaileak kontu handiz ibili beharko du iturri ezezagunetatik datozen fitxategiak exekutatzeko orduan. Zalantzarik izanez gero, mesedez, ez exekutatu fitxategia edo programa eta jarri harremanetan EAZarekin.
- 11.5. Hornitzaileek ezingo dute inolaz birusen kontrako programa desaktibatu, ekipoetan instalatuak badaude.

12. INTERNETEKO NABIGAZIOA**Printzipio orokorrak**

- 12.1. Ezin da inola ere jokoen, sexu-edukiko, edo giza duintasunarentzat edo funtsezko eskubideentzat iraingarriak edo laidogarriak diren internet helbideetan sartu.
- 12.2. Baliabidea helburu profesionalarekin erabiliko da.
- 12.3. Bestelako erabilerarik debekatua dago.
- 12.4. Beren funtzioak betetzeko hornitzaileek erabiltzen dituzten ordenagailuetatik egiten diren Interneten sareko konexioen datuak kontrolatu eta berrikusi ahalko ditu Lantikek, baita konexio horien edukia ere, Informatikako Jokabide Kode honetako 7.1 eta 7.2 klausuletan ezarritakoaren arabera.

13. POSTA ELEKTRONIKOAREN ERABILERA**Laneko posta elektronikoa**

- 13.1. Lantikek hornitzaileei ez die halako baliabiderik eskaintzen.
- 13.2. Lantiken eta bere bezeroen edo balizko bezeroen arteko harremanak behar duen tratu konfidentziala gauzatzeko, ezinbestekoa da egin beharreko komunikazioaren arabeko komunikazio-sistema egokienak erabiltzea. Horregatik,
 - 13.2.1. Aplikatu behar den araudia betetzea, erabilera egokia eta segurtasuna bermatu behar dira, eta gainera, komunikazioen edukia Lantiken zerbitzu teknikoek auditatzeko eta kontrolatzeko modukoa dela ziurtatu behar da.
 - 13.2.2. Lantiken eta hornitzaileen artean informazioa modu seguruan (enkriptatua) trukatu da informazio konfidentzialaren kasuan.

Posta elektronikoa profesionalari aplikatu behar zaizkion printzipio orokorrak

- 13.3. Informazioa ateratzen ez dela ziurtatzeko eta zerbitzuaren eraginkortasuna bermatze aldera, posta beharrezkoa denean bakarrik erabiliko da, eta ezinbesteko hartzaileei bakarrik bidaliko zaizkie mezuak.
- 13.4. Berariaz debekatuta dago Lantiken sistema informatikoko beste erabiltzaile batzuen mezuak edo posta elektronikoko helbideak baimenik gabe atzematea edo erabiltzea.
- 13.5. Lantiken hornitzaileek fidagarria ez den jatorriko mezu elektronikoak errefusatu behar dituzte, birusak edo kode gaiztoak, SPAM edukia etab. eduki ditzaketelako.
- 13.6. Lantiken hornitzaileek ez dute postako helbidea jakitera emango, beharrezkoa ez bada. Horrenbestez, ez dute parte hartuko mezu-kateetan, nahiz eta helburua itxuraz asmo onekoa izan.

Segurtasun Araua: jokabide informatikoaren kodea hornitzaileentzat

Indarrean sartzeko data: 11/05/02

Berraztertzea: 06

- 13.7. Posta elektronikoa erabiltzen duten hornitzaileek konfidentziasuna eta segurtasuna bermatzeko zehazten diren arauak eta politikak jarraituko dituzte.
- 13.8. Hornitzaileek posta elektronikoa ondo erabiltzen dutela egiaztatzeko Lantikek egiten dituen kontrolari eta berrikuspenari dagokienez, kode honetako 7.1 eta 7.2 klausuletako edukia aplikatu behar da.

14. GORDETZEA (sare-unitateak, lankidetzarako lan puntuak, etab.)

- 14.1. Lantikek hornitzaileen esku gordetzeko jartzen duena erabilera profesionalera bideratuko da.
- 14.2. Hornitzaileei eskaintzen zaizkien gordetzeko bitartekoa ezin da inola erabili datu pertsonalak edo lanekoak ez diren datuak biltegitzeko.
- 14.3. Debekatuta dago bestelako erabilerarik.
- 14.4. Baliabide horiek erabiltzen dituzten hornitzaileek informazio-trukaketaren konfidentziasuna eta integritatea bermatzeko ezarritako arauak eta politikak bete behar dituzte.
- 14.5. Hornitzaileek sareko unitateak (biltegitzea) ondo erabiltzen dituztela egiaztatzeko Lantikek egiten dituen kontrolari eta berrikuspenari dagokienez, kode honetako 7.1 eta 7.2 klausuletako edukia aplikatu behar da.

15. HORNITZAILEEK ESKATU EZIN DITUZTEN BALIABIDEAK

- 15.1. Hornitzaileek ezingo dituzte lortu edo eskatu hainbat baliabide. Hain zuzen ere, honako hauek dira:
- 15.1.1. Posta korporatiboa.
 - 15.1.2. Intranetera atzipena.
 - 15.1.3. VPN atzipena.
- 15.2. Aurreko zerrendan adierazitako baliabideren bat zerbitzua eskaintzeko ezinbestekoa bada, salbuespen bezala eta hurrengo modura tratatuko da:
- 15.2.1. Hornitzaileak Lantiken zerbitzuaren arduradunari jakinarazi beharko dio eta horren baimena izan beharko du.
 - 15.2.1.1. Baimenduz gero, Segurtasun Sailari jakinaraziko zaio, berak ere onar dezan.
 - 15.2.1.2. Ez da baliabidea emango, Segurtasun Sailak ontzat eman gabe. Sartuz gero, Segurtasun Sailak proposatutako kontrolak ezar daitezke.

16. HORNITZAILEAK ESKURATUTAKO BALIABIDEAK

- 16.1. Atal hau hornitzaileek zerbitzua eskaintzeko eskuratutako baliabideei aplikatzen zaie.
- 16.2. Lantiken azpiegituran sartu baino lehen, honakoak bete behar ditu:
 - 16.2.1. Lantiken zerbitzuaren arduradunari jakinarazi eta bere baimena lortzea.
 - 16.2.1.1. Horrek Politika Teknologikoei jakinaraziko die onar edo uka ditzaten..
 - 16.2.1.2. Onartuz gero, Lantiken Segurtasun Sailak baimendu beharko du.
 - 16.2.1.3. Ez dira sartuko, Segurtasun Sailak ontzat eman arte. Sartuz gero, Segurtasun Sailak proposatutako kontrolak ezar daitezke.

17. BETETZEA

- 17.1. Hornitzaileen erantzukizuna da legeria aplikagarria betearaztea, adibidez Datuen babesari buruzko araudia, SEN, JIL, IGZL, etab.

18. JOKABIDE ARAUAK BETE BEHARRA

- 18.1. Azkenik, Lantikek uste du hornitzaileei gogorarazi behar zaiela gidalerro horiek zehatz-mehatz bete behar ditzutela, bezeroen eta erabiltzaileen intimitatea zaintzeko, komunikazio-sarearen kalitatea eta gaitasuna hobetzeko, eta segurtasuna handitzeko.
- 18.2. Horregatik, hornitzaileek dokumentu honetako gidalerroak betetzen ez badituzte, Lantikek neurri egokiak hartu beharko ditu. Horrez gain, arau hauek betetzen ez dituen hornitzaileak erantzukizun zibil, penal edo lan izaerakoak izan ditzakete.
- 18.3. Gainera, Lantikek eskainitako bitarteko tekniko edo informatikoak jokabide kode honetan ezarritakoaren arabera erabiltzen ez dituen hornitzaileari ordenagailuaren edo sareko gailuaren erabilera eten ahalko dio Lantikek.

Segurtasun Araua: jokabide informatikoaren kodea hornitzaileentzat

Indarrean sartzeko data: 11/05/02

Berraztertzea: 06

19. INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA

- 19.1. Jokabide kode honetan dagoen edukia nahitaez jakin eta bete behar dute Lantiken hornitzaile guztiek. Kodearen edukia 2011ko maiatzaren 2an sartu zen indarrean eta indarrean egongo da harik eta aldatzen den arte edo beste batek ordezkatu arte.
- 19.2. Lantikek hornitzaile bakoitzaren esku kopia bana jartzen du honako helbidean: http://lantik.bizkaia.eus/ca_contratacion.asp.
- 19.2.1. Helbide horretan dago une bakoitzean azkeneko bertsio erabilgarria.
- 19.3. Hornitzailearen erantzukizuna da bere erakundean Kodea zabaltzea.

20. ZERIKUSIA DUTEN DOKUMENTUAK

NCS-1/2 Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia

NSG 1/1 Segurtasun Arauaren eranskina: Jokabide Informatikoaren Kodea. Administratzaileentzako eranskina.

21. BERRIKUSPENEN HISTORIALA

Berrikuspena	Data	Aldaketak
00	11/03/24	Arauaren onarpena
01	11/10/20	<ul style="list-style-type: none"> 3.3 atalean erabiltzailearen eta administratzailearen definizioak berrikusi ziren eta erabiltzaile profilarantzako eta administratzaile profilarantzako definizioak erantsi ziren. Aplikazio Eremua 4. atalean administratzailearen profila duten pertsonen, modu osagarrian, NSG 1/1 Segurtasun Araua: Jokabide Informatikoaren Kodea. Administratzaileentzako eranskina izeneko Eranskinean dauden arauak aplikatuko zaizkiela adierazteko puntua erantsi zen.
02	13/05/10	<ul style="list-style-type: none"> Dokumentuaren irismenean kokapenak sartu ziren. Instalazioetan sartzeari buruzko atala sartu zen. Lantiken instalazioetan egoteko identifikazio-agiria erraz ikusteko moduan eduki beharra erantsi zen. 01 bertsioaren behin-behineko denboraldia deuseztatu zen (18 titulua).
03	16/11/29	<ul style="list-style-type: none"> Nagusiki, SEN betetzea gehitu zen. Euskarriak emateari buruzko aldaketa txikiak, jada ez dira euskarriak trukutzen. Posta korporatiboaren baliabideak debekatzeko posta elektronikoaren politika moldatu zen. HORNITZAILEAK ESKURATUTAKO BALIABIDEAK sartzeko prozedura hobetu zen. Kopia entregatzearen beharra deuseztatu zen, hornitzailearen esku egongo da hurrengo helbidean: http://lantik.bizkaia.eus/ca_contratacion.asp "Sare unitateetatik" "Biltegiatzera" titulua aldatu zen informazioa gordetzeko mota berriak sartzeko: sarea, SharePoint, etab. "HORNITZAILEEK ESKATU EZIN DITUZTEN BALIABIDEAK" titulu berria sartu zen Lantiken segurtasun politika berriak sartzeko, besteak beste, ez VPN, ez Intranet, etab. Salbuespenetarako prozedura erantsi zen.

NCS-1 / 1



Segurtasun Araua: jokabide informatikoaren kodea hornitzaileentzat

Indarrean sartzeko data: 11/05/02

Berraztertzea: 06

04	18/09/21	<ul style="list-style-type: none">Araua Datuak Babesteko Araudi Orokorrera (DBAO) egokitzea: DBLOari erreferentzia egiten diotenak ezabatu dira eta 17. atala berrikusi da. DATU PERTSONALEN BABESA.Dokumentua antolaketa-egitura berriaren eta lengoia neutroaren arabera eguneratu da.
05	20/06/05	<ul style="list-style-type: none">Kontrol informatikoaren batzordea aipatzen duen 7.2 atala kendu da, ez dela beharrezkoa erabaki baita.
06	22/10/14	<ul style="list-style-type: none">7.1 puntua handitu da, eta 7.2 eta 7.3 puntuak sartu dira, sarbide logikoen kontrol- eta segurtasun-tratamenduari jarraiki.